

STARTINNOVA

CEO3

KOSTU EGITURA:

Kostu finkoak ekoizpena aldatuta ere konstante mantentzen diren kostuak dira. Kostu aldakorrek edo aldagarriak, berriz, ekoizpenaren arabera aldatzen direnak dira, ekoizpenarekin batera handitzen direnak.

Hauek izango lirateke gure enpresaren **kostu finkoak**:

- Alokairua: Gure lokala Donostian egongo da kokatuta eta 3000€ko alokairua izango da hilabetero.
- Bulegoko materiala: ordenagailua, papera, boligrafoak, grapagailua, aulkiak, mahailak...
- Konponketa eta mantentze lanak: Elektrizitategintzan, iturgintzan, gas teknikoak...
- Hornidura: ura, gasa, argia...
- Gastu finantzak:
- Tributuak eta zergak
- Garraioa


Beste hauek **aldakorrek** izango dira:

- Gastu orokorrak:
- Eskulana: funda gehio egiten baditugu, geroz eta langile gehiago beharko ditugu.
- Lehengaien kontsumoa: Ekoizpen-prozesuan erabiltzeko, neurtzeko eta produktu bukatu bakoitza identifikatzeko erosten dituzten material guztiak. Begien bistakoa da produktu-unitate gehiago egiten diren bitartean, lehengai gehiago eskatzea. Gure lehengaiak plastikoa izango lirateke, berez enpresak dohainik eman beharko digute plastikoa baina kostuetan sartu dugu enpresa batzuk dirua eskatu ahal dutelako.
- Bilgarriak: ekoizpenarekin eta produktuaren salmentarekin zerikusia dauka.

• Edozein proiektu aurrera ateratzeak hainbat gastu egitea eskatzen duela, eta gure enpresa gastu horiei aurre egiteko gai izan behar dela.

• Kostu-egiturek ondorengo ezaugarriak izan ditzakete:

1. Kostu finkoak
2. Kostu aldakorrek
3. Eskala-ekonomiak



4. Hedapen-ekonomiak

- Negozio-eredu batzuek prezio baxuak dituztelako funtziona dezakete; beste batzuek, berriz, duten kalitate-maila handiagatik.